

ARIKETAK

- 1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:
- a) Gizon bat hil da Seguran lastoa erretzen ari zela bihotzekoak jota. Sutea 13:45ak aldera piztu zen, gizona makina batekin lastozko bolak egiten ari zela, **eszedenteak** erretzea erabaki zuenean.
b) Gizon bat hil da Seguran lastoa erretzen ari zela bihotzekoak jota. Sutea 13:45ak aldera piztu zen, gizona makina batekin lastozko bolak egiten ari zela, **soberakinak** erretzea erabaki zuenean.
 - a) Karadzicen aurkako epaiketa. NBEko 200 bat kasko urdin bahitu eta **giza ezkutu** gisa erabiltzeaz akusatzen dute.
b) Karadzicen aurkako epaiketa. NBEko 200 bat kasko urdin bahitu eta **giza eskudo** gisa erabiltzeaz akusatzen dute.
 - a) Venezuelako presidente Hugo Chavezek Kolonbiako zerbitzu sekretuetako bi kide atxilotu dituztela berretsi du; **espioi** gisa lanean ari ziren.
b) Venezuelako presidente Hugo Chavezek Kolonbiako zerbitzu sekretuetako bi kide atxilotu dituztela berretsi du; **espia** gisa lanean ari ziren.
 - a) Ara Malikian egungo biolin jotzaile garrantzitsuenetariko bat da, musika tresnarekin lortzen duen **espresibitate** eta sentiberatasunak perfekziora hurbiltzen baitu.
b) Ara Malikian egungo biolin jotzaile garrantzitsuenetariko bat da, musika tresnarekin lortzen duen **adierazkortasun** eta sentiberatasunak perfekziora hurbiltzen baitu.
 - a) Gure bokazioa da Euskal Herriko artistentzat irteera **estrardu** izatea, eta inguruko lanik berritzaileenei aukera ematea jendaurrean erakusteko. Nolanahi ere, kanpotarrak ere izango dira BAD jaialdian.
b) Gure bokazioa da Euskal Herriko artistentzat irteera **oholtza** izatea, eta inguruko lanik berritzaileenei aukera ematea jendaurrean erakusteko. Nolanahi ere, kanpotarrak ere izango dira BAD jaialdian.
 - a) Suhiltzaileak protestaren lekura iritsi eta **eskailera** bat jarri zieten; ekintzaileak beren borondatez jaitsi ziren orduan.
b) Suhiltzaileak protestaren lekura iritsi eta **eskilara** bat jarri zieten; ekintzaileak beren borondatez jaitsi ziren orduan.
 - a) **Estankoetan** saldutako tabakoa %0,8 garestitu zen iaz, tabakismoa eta horren inguruko gaixotasunak gutxitzeko gobernuak hartutako neurri fiskalak direla eta.
b) **Estankuetan** saldutako tabakoa %0,8 garestitu zen iaz, tabakismoa eta horren inguruko gaixotasunak gutxitzeko gobernuak hartutako neurri fiskalak direla eta.
 - a) **Estolderia** garbitzen ari ziren bi langile hil dira Miarritzen, ur erauntsiak eramanda. Euskal Herrian, urtea hasi denetik, 101 langile hil dira.
b) **Estoldaritza** garbitzen ari ziren bi langile hil dira Miarritzen, ur erauntsiak eramanda. Euskal Herrian, urtea hasi denetik, 101 langile hil dira.

A R I K E T A K

9. a) Zerrendako lehen postuetan aspalditik **egonkortasun** politiko eta demokratikoaz gozatu duten herrialdeak ageri dira: goi-goian, Zeelanda Berria, Danimarka eta Suedia.
b) Zerrendako lehen postuetan aspalditik **estabilitate** politiko eta demokratikoaz gozatu duten herrialdeak ageri dira: goi-goian, Zeelanda Berria, Danimarka eta Suedia.
10. a) Basoan zehar aldapan gora **eskurtsio** ederra egin ondoren, adi-adi egon dira hango langileen lanari begira eta azalpenak entzuten.
b) Basoan zehar aldapan gora **txango** ederra egin ondoren, adi-adi egon dira hango langileen lanari begira eta azalpenak entzuten.
11. a) 1925eko Nobel saridunaren **eskueskribu** bat aurkitu du Peter Walker ikerlariak; 79 urtez armairu batean gordeta egon da.
b) 1925eko Nobel saridunaren **eskuizkribu** bat aurkitu du Peter Walker ikerlariak; 79 urtez armairu batean gordeta egon da.
12. a) **Eskialari** batek harrapatu eta lesioak eragin zizkion.
b) **Eskiatzaile** batek harrapatu eta lesioak eragin zizkion.

2 Saia zaitetz identifikatzen honako esaldietan Iñigo Roquek "Bi puntuen aurrea eta atzea" artikuluan proposatutakora gehien hurbiltzen direnak.

1. a) Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusaren eskaintza interesgarria da titulazioei dagokienez; hain zuzen ere, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Komunikazioa, Turismoa eta Gizarte Lana.
b) Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusaren eskaintza interesgarria da titulazioei dagokienez; hain zuzen ere: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Komunikazioa, Turismoa eta Gizarte Lana.
c) Deustuko Unibertsitatearen Donostiako campusaren eskaintza interesgarria da titulazioei dagokienez: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Komunikazioa, Turismoa eta Gizarte Lana.
2. a) Barne ikuskaritzekin hauexek berraztertzen dira: ordena-zereginak, kontabilitateko erregistroa, informazioaren sailkapena eta agiritegiaren kudeaketa.
b) Barne ikuskaritzekin berraztertzen dira ordena-zereginak, kontabilitateko erregistroa, informazioaren sailkapena eta agiritegiaren kudeaketa.
c) Barne ikuskaritzekin berraztertzen dira: ordena-zereginak, kontabilitateko erregistroa, informazioaren sailkapena eta agiritegiaren kudeaketa.
3. a) Neurri horren barnean, honakoek jaso dezakete laguntza: kimioterapiako tratamenduak eta borroka biologikorako metodoak.
b) Neurri horren barnean, kimioterapiako tratamenduek eta borroka biologikorako metodoek jaso dezakete laguntza.
c) Neurri horren barnean, honakoek jaso dezakete laguntza, kimioterapiako tratamenduak eta borroka biologikorako metodoak.
4. a) Oharra: aurrekontua onartzen baduzu, inprimaki hau berau izenpetu eta bidali IVAPera.
b) Oharra: Aurrekontua onartzen baduzu, inprimaki hau berau izenpetu eta bidali IVAPera.
c) Oharra: Aurrekontua onartzen baduzu, inprimaki hau berau izenpetu eta bidali IVAPera.
5. a) Azalpenezko testuetan hizkuntza akademikoko ezaugarriak metatzen dira: egitura gramatikal konplexua dute. Gaiari lotutako hitz asko azaltzen dira; gehienetan, informazioa oso kontzentratua agertzen da, eta testuaren egitura helburuaren arabera aldatzen da.
b) Azalpenezko testuetan hizkuntza akademikoko ezaugarriak metatzen dira: egitura gramatikal konplexua dute; gaiari lotutako hitz asko azaltzen dira; gehienetan, informazioa oso kontzentratua agertzen da, eta testuaren egitura helburuaren arabera aldatzen da.
c) Azalpenezko testuetan hizkuntza akademikoko ezaugarriak metatzen dira. Egitura gramatikal konplexua dute. Gaiari lotutako hitz asko azaltzen dira. Gehienetan, informazioa oso kontzentratua agertzen da. Testuaren egitura helburuaren arabera aldatzen da.

A R I K E T A K

6. a) Bale-arrantza 1986tik debekatuta dagoen arren, ez da erraza baleak babestea: Japoniak ikerketa zientifikoarako hiltzen ditu baleak; Norvegiak ez dio debekuari jaramonik egiten, eta zenbait herri aborigenek baleak arrantatzeko baimena daukate, inuitek adibidez.
- b) Bale-arrantza 1986tik debekatuta dagoen arren, ez da erraza baleak babestea: Japoniak ikerketa zientifikoarako hiltzen ditu baleak. Norvegiak ez dio debekuari jaramonik egiten, eta zenbait herri aborigenek baleak arrantatzeko baimena daukate, inuitek adibidez.
- c) Bale-arrantza 1986tik debekatuta dagoen arren, ez da erraza baleak babestea. Japoniak ikerketa zientifikoarako hiltzen ditu baleak. Norvegiak ez dio debekuari jaramonik egiten. Zenbait herri aborigenek baleak arrantatzeko baimena daukate, inuitek adibidez.
7. a) Ahaidea mendetasun-egoeran dagoela egiaztatzen duen ziurtagirian honako hauek zehaztuko dira: mendetasun-maila eta maila bakoitzean duen azpi-maila, Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta Lege hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoaren arabera.
- b) Ahaidea mendetasun-egoeran dagoela egiaztatzen duen ziurtagirian zehaztuko dira: mendetasun-maila eta maila bakoitzean duen azpi-maila, Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta Lege hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoaren arabera.
- c) Ahaidea mendetasun-egoeran dagoela egiaztatzen duen ziurtagirian zehaztuko dira mendetasun-maila eta maila bakoitzean duen azpi-maila, Autonomia Pertsonala eta Arreta Sustatzeko abenduaren 14ko 39/2006 Legean eta Lege hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoaren arabera.

3

Sinonimoak eman:

1. Hiru biren kontra baziren ere, **xalo-xalo** aritu ziren eta kontraeraso garbi batean partida erabaki ahal izan zuten.
2. Bulegorako sarbidea oinezkoentzat arriskutsua zenez, **estrata** zaharra gaitu da, ireki berria den bide-tartearekin batera.
3. Zauria gaiztotu egin zaio eta **zornea** dario. Medikuairengana joan beharko luke infekzio hori nola sendatu galdetzeko.
4. Berria berehala **barreiatu** da langile guztien artean; denak dira jakitun dagoeneko.
5. Udako egun beroetan zuhaitz baten **gerizan** siesta botatzea bezalakorik ez dago!
6. Azken egunotako euri jasen ondorioz, **luizia** izan da N-634 errepidean, Getaria parean, eta bidea itxi egin behar izan dute.
7. Krisi ekonomikoaren garaian, inoiz baino gehiago baliatuko dute merkealdia kontsumitzaileek; baina, diotenez, dirua **xahutu** gabe.
8. Lanpostuak betetzeko merezimendu-lehiaketa prozesuetan maiz entzuten dira **iruzur** kontuak, eta salaketak ere egon dira behin baino gehiagotan.
9. Aldizkarian agertutako gramatika ariketak **apailatu** eta liburu batean jasoko ditugu hemendik gutxira.
10. **Eskuarki**, argibideren bat edo beste eman ohi dugu liburuaren atzeko aldean; baina, oraingoan, iruditu zaigu liburuaren irakurketa zapuztuko genukeela.
11. Txirindulari gazteen belaunaldiek eta asmo berriz datozen antolaketa-arduradunek txirindularitzaren ikuskinari beste **jite** bat eman diote.
12. Azken ikerketen arabera, Euskadi **aitezindari** da Interneten erabilera ezartzen. Beste herrialde batzuetan atzeratuago dabilza kontu horietan.

SOLUZIOAK

1 Euskaltzaindiaren *Hiztegi batua* aintzat hartuz, aukeratu zuzena edo egokiena:

- | | |
|------|-------|
| 1. b | 7. a |
| 2. a | 8. a |
| 3. a | 9. a |
| 4. b | 10. b |
| 5. b | 11. b |
| 6. a | 12. b |

2 Saia zaitez identifikatzen honako esaldietan Iñigo Roquek "Eskailera-maila atzendua: puntu eta koma" artikuluan proposatutakora gehien hurbiltzen direnak.

- | | |
|------------|------------|
| 1. a eta c | 5. b |
| 2. a eta b | 6. a eta c |
| 3. a eta b | 7. a eta c |
| 4. b | |

3 Sinonimoak:

- | | |
|-------------------------|---------------------------------|
| 1. apal-apal, xume-xume | 7. gastatu, eralgi |
| 2. gurdibide, galtzada | 8. engainu, tranpa |
| 3. usteldura, hirodura | 9. antolatu, atondu |
| 4. zabaldu, hedatu | 10. gehienetan, normalean |
| 5. itzalean, gerizpean | 11. tankera, itxura |
| 6. lurjausi, luperia | 12. currendari, bide-urratzaile |